

PRESENTACIÓN DE LA CANDIDATURA FORAL DE EAJ-PNV A ELECCIONES FORALES. INTERVENCIÓN DEL CANDIDATO A DIPUTADO GENERAL, JOSE LUIS BILBAO.

Hace ahora cuatro años comparecía en un acto similar a este de hoy con el honor de ser candidato a diputado general de Bizkaia en representación de una coalición entre nacionalistas vascos.

Los tiempos cambian. Todos cambiamos, pero el honor para mí sigue siendo el mismo al encabezar nuevamente la alternativa electoral de mi partido, del Partido Nacionalista Vasco, de cara a los próximos comicios forales en Bizkaia.

El dicho popular de que “quien se mueve no sale en la foto” tiene hoy su expresión más gráfica, pues pese a todos los intentos por mantener y afianzar aquella alianza por quienes creemos que juntos sumamos más que por separado , otros, legítimamente y en ejercicio de su responsabilidad, han optado por reforzar su perfil electoral.

Respeto las libres decisiones de cada cual, aunque permítanme que manifieste mi decepción porque para mí, después de colaboración cordial en este cuatrienio de gobierno foral, no sumar, en este caso está más cerca de restar que de otra cosa. Y creo que el país no necesita restar sino todo lo contrario.

Dicho esto, quiero agradecer sinceramente la confianza que ha depositado en mí el Partido Nacionalista Vasco para volver a ser su cabeza de lista en estos nuevos comicios. Es un orgullo y una gran responsabilidad para quien les habla representar al Partido que no solo en estos treinta años de vida institucional, sino en su centenaria trayectoria, ha sido en Euskadi el fiel reflejo de la libertad, la democracia y el servicio público.

Benetan, eskerrik asko. Ohore handia da niretzat zuen hautagaia izatea.

Recuerdo que hace cuatro años, en mi discurso de presentación, hice mención a muchas cosas. A la ignominiosa guerra de Irak, cuyas secuelas todavía sacude nuestras conciencias. A la búsqueda de la paz en Euskadi, al proceso político por encontrar un nuevo marco para la convivencia.

También mencioné la inusitada campaña de acoso y derribo que habíamos sufrido los nacionalistas vascos de manos del aparato aznarista y la derechona mediática y judicial.

Hay cosas que no cambian nunca, y si bien son otros estos días los que padecen los ataques de pancarteros rojigualdos de aguiluchos trasnochados y símbolos requetés, en el fondo , el ruido sigue siendo el mismo.

Lo que ocurre es que , entonces , los demonizados éramos los nacionalistas vascos y ahora, seguimos siéndolo pero con compañeros de viaje en el infierno.

Ahí está el escandaloso procedimiento judicial contra el Lehendakari de Euskadi, la más alta autoridad de la Comunidad Autónoma Vasca y representante ordinario del Estado

aquí, según el ordenamiento jurídico vigente. Un procedimiento abierto por el desempeño de sus funciones. Por dialogar. Por buscar soluciones para este país.

No olvidamos que quienes alimentaron la fiera , quienes compartieron estrategia pan y mantel en aquel convite antinacionalista son ahora los sufridores de aquel despropósito. Los mismos que siguen gobernando aquí con los meritorios de Acebes, Zaplana y Rajoy. Los mismos que apuntalan su exigua mayoría o que se la arrebataron a las listas más votadas con los apoyos del mismo Partido Popular que hoy les sacude por donde puede.

¿Volverán a hacer lo mismo después del 27 de mayo? Suya es la respuesta.

Hace cuatro años obtuvimos la confianza mayoritaria de la ciudadanía de Bizkaia. Presentamos un programa a ras de suelo. Con iniciativas concretas. Proyectos identificados, con una premisa sustancial; las personas antes que el hormigón.

Y hemos cumplido todos nuestros compromisos. Agradezco sinceramente el trabajo realizado por todos mis colaboradores, incluyendo entre estos a los apoderados y apoderadas que desde el Grupo Juntero Nacionalistas Vascos han respaldado cuantas iniciativas nos habíamos propuesto. Gracias, de verdad, por haber hecho posible el importante salto cualitativo que ha vivido Bizkaia en estos cuatro años.

Salto cualitativo en crecimiento económico, en prestaciones sociales, en equipamientos, en la recuperación del medio natural.

Salto cualitativo en la política de las cosas. Porque cuando las cosas, lo tangible, lo inmediato, se convierte en prioridad, la política se escribe con mayúsculas.

Así debe ser. Nos preocuparán los grandes problemas que padecemos, la paz, el empleo, la autodeterminación. Pero cuando de verdad nos aprieta el zapato es cuando existe la certeza verdadera que el puesto de trabajo de fulanito o menganita está en riesgo de perderse.

Y ahí hay que remangarse. Ir hasta Gueñes, hablar con los trabajadores y empresarios y arbitrar medidas que posibiliten que Virtisú continúe con la actividad industrial.

O cuando los vecinos de Olabeaga temen por su barrio sentarse con ellos y garantizarles que la nueva carretera no hipotecará su futuro. O cuando los vecinos de Irala exigen a FEVE el soterramiento de su trazado ferroviario y desde las instituciones vizcainas respaldamos presupuestariamente dicha reivindicación para que la Administración del Estado no escurra el bulto.

La política con mayúsculas es lo que le importa a Javier en Mañaria, a Rosa Mari en Berriz, a Aitor en Ondarroa, a Manu en Abanto o a Miren en Berango.

Esa es nuestra política de las cosas. Gobernar es hacer. Es, salvando las distancias, como quien administra su casa. Tanto dinero tienes, tanto gastas para hacer frente a las necesidades. Lo importante es priorizar y saber hasta dónde puedes llegar económicamente para atender dónde está el problema y cómo resolverlo.

Esa es nuestra propuesta presente y futura.

Llevamos meses trabajando en el diseño de una estrategia de gestión que nos permita hacer frente a los principales desafíos a los que se enfrenta Bizkaia en los próximos años.

Han sido más de un millar las personas que han reflexionado con nosotros desde su compromiso particular o asociativo de cara a encontrar respuestas adecuadas a las incógnitas que el futuro inmediato nos va a reportar.

Y gracias a este esfuerzo participativo del debate “Bizkaia 2015” hemos elaborado un plan de actuación para los próximos cuatro años.

Diez son nuestras propuestas que vamos a presentar a la ciudadanía vizcaina para renovar su confianza.

La primera de ellas hace referencia a la necesidad de seguir creciendo económicamente para mejorar la situación de todos los aquí vivimos.

El apoyo de nuestra estructura económica pasa en estos momentos por la innovación, la tecnología y el conocimiento. En un mundo globalizado no podemos competir en costes de producción.

Los países emergentes tienen hoy por hoy una estructura de costes de manufactura que nos obliga a ir por delante de ellos. El reto y el desafío se convierten en oportunidad.

Tenemos que fortalecer nuestro carácter industrial porque de la industria se nutren los servicios, se genera actividad, empleo y riqueza en definitiva.

Nuestro objetivo, como nacionalistas vascos es sembrar para recoger, crear riqueza para luego poder repartirla. Tener las personas mejor cualificadas para resolver los problemas venideros. El impulso a la investigación en el sector de automoción con el futuro Centro de Inteligencia del Automóvil en Amorebieta y Ermua, el apoyo a las nuevas tecnologías de la construcción, con la nueva planta de Alonsotegi, el nuevo espacio para la tecnología y la empresa en Abanto y Ortuella o la configuración de un nuevo campus científico y tecnológico de la UPV en Leioa y Bilbao, van a ser actuaciones prioritarias del equipo de gobierno de la Diputación que surja de los próximos comicios forales.

De igual manera es mi compromiso y el del Partido Nacionalista Vasco la revitalización de áreas como la de Gernika y su entorno en las que su industria tradicional ha ido languideciendo lentamente, atrayendo nuevos proyectos económicos que sirvan para recuperar el pulso y el dinamismo de antaño de una comarca pujante y emprendedora.

Primero vivir y luego filosofar. Con una fiscalidad atractiva pero rigurosa. Siendo implacables , como lo hemos hecho hasta ahora con quien defraude. Se llame como se llame

En la que invertir resulte rentable pero en la que todos paguen lo que les corresponda.

Segundo eje programático; Vivienda.

En los últimos cuatro años, la Diputación Foral de Bizkaia, en estrecha colaboración con los ayuntamientos, ha desarrollado un primer plan de vivienda ha servido para explorar un camino que necesita de mayor implicación pública. Mayor trabajo en común. Mayor agilidad en las herramientas de gestión. Así y nuevamente de la mano de las corporaciones locales, estamos en disposición de abordar una nueva fase del Plan Foral de Vivienda en la que, con las actuaciones pendientes de Trapaga y Ortuella, se pudieran levantar unas tras mil edificaciones nuevas con el consenso de una veintena de municipios.

Tercera apuesta programática: Una vejez en dignidad.

En los últimos cuatro años el presupuesto de la Diputación Foral de Bizkaia en relación a los servicios sociales se ha incrementado en un 84%. Esa apuesta decidida de justicia social, de utilización de los recursos públicos a quienes más lo necesitan va a continuar. El respaldo al entorno familiar y, en su caso, la prestación de servicios públicos fuera del domicilio son los pilares fundamentales de una propuesta que contempla :

1.- Promoción de las políticas de envejecimiento activo para el conjunto de la población mayor con acciones de tipo formativo, de ocio, de solidaridad, de interacción y de participación social.

2.- Implantación de ayudas técnicas para la atención de las personas mayores en sus domicilios.

3.- Desarrollo de la Teleasistencia.

4.- El fomento de los servicios de ayuda domiciliaria.

5.- Ampliación de la cobertura de los centros de día, tanto en plazas como en horario de atención.

6.- Apoyo a la red de atención familiar y , para finalizar este ámbito,

7.- El incremento de las plazas residenciales y socio-sanitarias en todo el territorio.

Cuarto eje programático; Igualdad de oportunidades.

Igualdad para los de aquí sea cual sea nuestro origen . Vivamos donde vivamos. Solidaridad entre todos. Corresponsabilidad entre mujeres y hombres.

Nuevas oportunidades para los discapacitados, con servicios públicos de calidad en nuestro entorno. Con programas específicos para derribar las barreras urbanísticas en nuestras calles, para posibilitar la accesibilidad de quienes tienen mermadas su capacidad de movimientos. Nuevas plazas residenciales y en centros de día. Nuevos centros ocupacionales, apartamentos tutelados, asistencia domiciliaria, transportes públicos adaptados.

Solidaridad hacia fuera, con inversiones del 0,7% del presupuesto público. 0,7% de los recursos de verdad, sin trampa ni cartón.

Quinta actuación programática; Calidad de vida para todos.

Para los de la metrópoli y para los núcleos rurales. Bienestar equilibrado territorialmente. De la mano de la cultura, del ocio. De los nuevos equipamientos. Con el nuevo frontón, el Palacio de los Deportes. Con una nueva Piscina Olímpica , con un deporte escolar reforzado. Y también con el deporte de élite. Con el Athletic, el Bilbao Básquet, los ciclistas de Euskadi, con la Pala profesional, con el ciclismo femenino, con Bizkaia Bizkaialde.

Con una gestión adecuada de los servicios básicos. Con agua de calidad y cantidad en todos los municipios. Con un plan ciclable y una red de bidegorris.

Sexto eje programático: El medio natural al servicio de la comunidad.

Para ello pretendemos continuar con la profesionalización y rejuvenecimiento del sector primario. Impulsaremos la puesta en marcha de un banco de tierras a modo de elkartegi agrícola. La recuperación de antiguas explotaciones en desuso. Abordaremos la implementación de la segunda fase del Plan de Residuos urbanos con la construcción de sus nuevas infraestructuras (Planta de Tratamiento Mecánico-Biológico; Planta de Compostaje) y aplicaremos al conjunto de las playas vizcainas estándares de calidad en su gestión y servicio a la ciudadanía. Además , junto a la Universidad del País Vasco, vamos a propiciar un proyecto vanguardista en Euskadi en políticas medioambientales a través de un nuevo Centro de Biotecnología ambiental para la Salud.

Unido a este apartado se encuentra el siguiente espacio programático; el séptimo; un nuevo impulso verde en Bizkaia.

En él contemplamos, junto al ayuntamiento de Bilbao, la configuración de un nuevo cinturón verde a Bilbao que vaya desde Malmasin y Montefuerte hasta Artxanda pasando por el Pagasarri. Con áreas de esparcimiento. Con nuevas machas de especies frondosas. Se desarrollará igualmente el proyecto Meatzegi Berdea, la mayor superficie de Bizkaia destinada a parque metropolitano y , también en el plazo de la próxima legislatura, recuperaremos la señalización los principales recorridos de senderos que atraviesan nuestro territorio.

El transporte público y las nuevas carreteras componen el octavo y noveno eje de nuestra futura acción de gobierno.

La ampliación de las coberturas y frecuencias de nuestros medios de transporte público son los principales objetivos de la propuesta electoral del Partido Nacionalista Vasco.

Nos proponemos ampliar en un 25% la capacidad de viajeros del ferrocarril metropolitano que , en estos cuatro años llegará a Santurtzi y Cabieces por un extremo y a Basauri por el otro.

De igual manera , es nuestra intención posibilitar una ampliación de horario en el servicio nocturno de viernes a sábado. Incrementaremos el número de plazas de aparcamientos disuasorios en estaciones que funcionen como intermodos de transporte .

En lo que a transporte por carretera se refiere se incrementarán la líneas directas con Bilbao, y de manera significativa en Enkarterri, tras la puesta en servicio del Corredor del Kadagua. Asimismo, no habrá municipio en Bizkaia sin un servicio de transporte público, poniéndose en marcha prestaciones de Bizkai-taxi en aquellos municipios que por su limitada demanda de viajeros aconseje sustituir el autobús por vehículos de tamaño más reducido.

En lo que a carreteras se refiere, además de las obras en marcha, que suponen la mayor inversión pública jamás realizada en Bizkaia, se acometerán , entre otros, los nuevos proyectos de aumento de capacidad de la A-8, los desdoblamientos de Enekuri y Santo Domingo, los accesos a San Mamés y se iniciarán los trabajos en comarcas en las que sus vías de comunicación están especialmente saturadas. Y me refiero a Autzagane y Bermeo (variante) en Busturialdea; Muntxaraz-Lebario y su correspondiente pinchazo en la autopista, así como la variante de Ermua en Durangoaldea y el tramo final del corredor de Ondarroa en Lea Artibai.

Concluimos la propuesta de gobierno del Partido Nacionalista Vasco con nuevos valores añadidos de calidad de vida para todos. Si en estos últimos cuatro años hemos llevado las infraestructuras que posibiliten el ancho de banda en Internet a Arratia , el valle del Kadagua y en breve se iniciarán los trabajos para hacer lo mismo con Bakio, en la próxima legislatura estaremos en disposición de dar un salto de gigante en la relación entre la Administración y los administrados a través de las nuevas tecnologías de la información.

Para ello, la Diputación de Bizkaia impulsará, junto a los ayuntamientos del territorio , la creación de un gran portal de contenidos en el que cualquier vizcaino o vizcaina pueda establecer sus relaciones de manera telemática con la Administración.

Para ello, se proveerá a todos los ciudadanos y ciudadanas de Bizkaia de un correo electrónico personal gratuito accesible desde múltiples dispositivos, a fin de que pueda llevar a cabo cualesquiera gestión con la administración foral y local.

Además de esta propuesta, pionera en el ámbito del Estado y que contará con el respaldo tecnológico de empresas punteras internacionalmente, estamos también dispuestos a llevar adelante una oferta a los ayuntamientos de Bizkaia para la instalación en inmuebles públicos de placas solares y fotovoltaicas que permitan un aprovechamiento sostenible de nuevas fuentes de energía limpia.

Estos son, a modo de resumen, las diez propuestas básicas sobre las que sostener una futura acción de gobierno en Bizkaia. Es la música de un programa ambicioso cuya letra desarrollaremos en próximas fechas pues aún queda tiempo para presentar pormenorizadamente a nuestra ciudadanía qué pretendemos hacer para mejorar la calidad de vida de quienes compartimos este espacio vital llamado Bizkaia.

Son proyectos, ilusiones. Compromisos. Mucho más que palabras.

Desde hace treinta años, el Partido Nacionalista Vasco , sus mujeres y hombres, han liderado la transformación de nuestra sociedad.

Toda formación política tiene como objetivo transformar la sociedad, mejorarla, adecuarla a las nuevas necesidades.

Nosotros, los nacionalistas vascos, optamos desde hace treinta años por construir una nación. Lo hicimos por ideología, porque creemos que Euskadi es la patria de los vascos. Porque éste es nuestro país, el país en que creemos. En el que crecerán nuestros hijos y nietos.

Algunos piensan que pueden gobernar aquí por control remoto. Y quizá sea posible, no lo niego. Pero gobernar es mucho más que tomar decisiones. Es cercanía. Mojarse cuando llueve porque llueve para todos. Es compartir las alegrías y sinsabores de los que tienes alrededor. Y saber que detrás de cada firma que se rubrica en un decreto, en una norma o en una orden, se afecta a la gente. Que detrás de cada decisión hay personas.

Por eso quienes mantienen la teoría del mando a distancia prometerán estos días las quimeras populistas más insospechadas. Llegarán las propuestas del “gratis total”, de la subasta mediática del “quien da más” o, en el peor de los casos, del insulto y el engaño.

Sólo quien sabe que no llegará a gobernar se puede permitir prometer lo imposible. Engañar es una palabra que no aparece en nuestro diccionario.
Nuestros compromisos son realidades. Es cuestión de confianza.

Otros anclados en el pasado, se presentarán en breve reivindicando sus derechos. Olvidando, como lo han hecho siempre, los derechos de los demás. Y tratarán de confundirnos en una estrategia calculada en la que el victimismo será el ropaje cautivador de quienes aún no han superado ni tan siquiera su perestroika particular.

Se han pasado treinta años detrás del “no”. Además de negarse a todo, de oponerse a todo ¿qué más saben hacer?.

Ojalá el próximo 27 de mayo su papeleta esté en los colegios electorales. Es su derecho y el derecho de todos por confrontar ideas y proyectos.

Allí les quiero, les queremos ver. Para derrotarlos democráticamente. Para constatar voto a voto, voluntad a voluntad cual es su representación , su minoría y su legitimidad.

Nosotros, a lo nuestro. Gu, gurera. A levantar todos los días la persiana. A seguir trabajando para tener una Bizkaia, una Euskadi mejor. Abertzalismo a pie de obra. Construcción nacional día a día. Construcción nacional de pico y pala.

Bizkaia, con el Partido Nacionalista Vasco, va a seguir adelante. Adelante con el crecimiento económico, con las prestaciones sociales, con la calidad de vida, con nuevos valores, con nuevas oportunidades. Vamos a seguir adelante liderando una nueva Euskadi .Un País que dependa básicamente de su voluntad y de su esfuerzo.

Bizkaia está dispuesta, presta, a encabezar esa Euskadi cada vez menos dependiente, más dueña cada día de su propio porvenir.

La clave está en sembrar para recoger. Crear riqueza para poder distribuirla.

Para que la gente, nuestra ciudadanía pueda ser, cada día, un poco más feliz que el día anterior. Para ganar metro a metro al porvenir. Para ganar país, sociedad, pueblo y patria. Una Bizkaia y Euskadi, libre, solidaria, próspera, abierta al mundo y en paz.

Eskerrik asko.

Orain dala lau urte etorri nintzan honelako ekitaldi batera, eta orduan izan neban ohorea, Bizkaiko ahaldun nagusi-gaia izateko, euskal abertzaleen arteko koalizino baten izenean.

Egoera aldatu egin da. Guztiok aldatu gara, baina ohorea bera da neuretzat, ze izango naz nire Alderdiaren hautagai-zerrendaren burua; izango naz Euzko Alderdi Jeltzalearen hautagai-zerrendaren burua, Bizkaiko foru hauteskundean.

Badago esakera bat dinoana, “mogitzen danak ez dauala urtetan argazkian”, eta esaldi hori sekula baino indartsuago dago; izan be, ahalegin guztiak eta bost egin doguz aliantza hareri eusteko, uste dogulako gehiago gareala alkarregaz, bakotxa bere bidetik baino; beti be, beste batzuk, eskubide osoagaz, eta euren buruz, erabagi dabe eurak bakarrik joatea, euren hauteskunde-indarra sendotzeko.

Errespetu osoa deutsiet bakotxaren erabagiai, baina, zuen baimenagaz, neure dezepzinoa agertu gura dot; hain zuzen, neuretzat koalizino atsegina izan dogu azken bost urteotan foru gobernuan, eta uste dot oraingoan gehiago dala galtzea beste ezer baino. Eta uste dot gure Herriak ez dauala galtzerik behar, ezpada guztiz kontrakoa.

Hori esanda, benetan emon gura dodaz eskerrak, Euzko Alderdi Jeltzaleak emon deustan konfiantzagaitik, eta horrela barriro izango naz buru hurrengo hauteskunderako zerrendan. Harro nago eta erantzukizunez beteta ikusten dot neure burua, gure Alderdiaren ordezkaria izateagaitik. Gure Alderdia izan da askatasun, demokrazia eta zerbitzu publikoaren ispilua, ez bakarrik erakundeetan emon doguzan azken hogeita hamar urteetan, ezpada bere ehunka urteetako bizimoduan.

Benetan, eskerrik asko. Ohore handia da niretzat zuen hautagaia izatea.

Orain dala lau gauza asko aitatu nebazan neure aurkezpenean: Irakeko gudu lotsagarria, beraren ondorenak oraindik be gure burua astintzen dabela; Euzkadin bakea lortzea; prozesu politikoa, alkarregaz bizitzeko leku barria topateko.

Aurrekoa ezeze, aitatu neban sufridu genduan eraso eta jazarpena; izan be, euskal abertzaleok sufridu genduan hori Aznarren aparatuak, eta hedabideen eta epaileen muturreko eskumatik.

Gauza batzuk eurenean diraue; nahiz eta gaur egun egoera bardina izan ez, beste batzuk dira erasoak sufritzen dabezanak, eta hor agiri dira pankartero hori-gorriak, hor agiri dira arranokume zaharkituak, hor agiri dira ikur errekeatek; funtsean, zarata lehengo bera da.

Baina, zer jazo da? Orduan deabruak gu geu ginan, euskal abertzaleok; gaur egun, segitzen dogu deabruak izaten, baina badoguz bidaideak infernurako bidera.

Hor dago Euskadiko Lehendakariaren kontrako prozesu lotsagarria; izan be, Lehendakaria da Euskal Autonomia Erkidegoko aginte gorena eta Estaduko ordezkari arrunta hemen; behintzat, hala dino ordenamendu juridikoak. Eta prozesua zabaldu jako bere lana egiteagaitik. Berba egiteagaitik. Konponbidea bilatzeagaitik Herri honentzat.

Ez dogu ahazten nortzuk emon eutsien jaten basapiztia honeri, nortzuk egin eben bat mahai eta gaiaren estrategia honegaz, abertzaleon kontra; ba, orain eurak dira astakeria haren sufrizaileak.

Eurak dira gobernatzen segitzen dabenak, eta langintza horretan morroi dabez Acebes, Zaplana eta Rajoy. Eurak eusten deutsie euren irabazi eskasari, eta eurak, Alderdi Popularraren laguntzagaz, baztertu ebezan boto gehien eukien zerrendak, baina Alderdi Popularrak gaur egun ahal dauan lekutik erasoten deutse.

Gauza bera egingo ete dabe maiatzaren 27aren ostean? Eurak erantzun behar dabe.

Orain dala lau urte lortu genduan Bizkaiko uritar gehienetan konfiantza. Orduan aurkeztu genduan oinarrizko egitaraua. Ekimen zehatzakaz. Proiektuak ziran ezagutzeko modukoak, eta eurak guztiak baeukien funtsezko oinarria: pertsonak lehenago dagoz porlana baino.

Eta bete egin doguz gure konpromiso guztiak. Benetan emon gura dodaz, neure laguntzaile guztiak egin daben lanagaitik, eta horreen artean dagoz Bizkaiko Batzarretako ahaldunak; izan be, eurak, Euzko Abertzaleen Taldeak, lagundi dabez guk aurkeztu doguzan proposamen guztiak. Eskerrik asko, bihotz-bihotzetik, ze zuei esker burutu ahal izan dogu Bizkaia azken lau urteotan egin dauan aurrerakada.

Aurrerakada hori egin dogu ekonomiaren hazkundean, gizarte-prestazinoetan, ekipamenduetan eta ingurugiroa berreskuratzen.

Aurrerakada hori egin dogu gauzen politiketan. Hain zuzen, gauzak, ukitu geinkeazanak, gure hurrekoak, horreek guztiak lehentasun bihurtzen diranean, orduan politika LETRA LARRITAN idazten da.

Horrela behar dau izan. Arduratuta gagoz une honetan daukaguzan arazoakaz: bakea, enplegua, autodeterminazioa. Baino estu-estu jarten gara, urlaren edo berendiaren lana benetan galdu leitekeanean.

Eta horrelakoetan lanari ekin behar deutsagu. Gueñesera joan behar da, eta berba egin langileakaz eta ugazabakaz, helburu hau lortzeko: Virtisúk jarraitu daiala lanean.

Gauza bera jazo zan Olabeagako auzotarrak beldur izan ziranean euren auzoa galdu eitekealako; orduan guk bermatu geuntsien errepide barriak ez ebala euren etorkizuna zalantzan jarriko. Eta bardin, Iralako auzotarrak exijidu eutsienean FEVEren trenbidea lur-azpitik pasatzeko; orduan, Bizkaiko erakundeok laguntza emon geuntsan eskakizun hareri aurrekontuen bitartez, eta modu horretara Estaduko Administrazioak bere erantzukizuna bete behar izan eban.

LETRA LARRIZ idazten dan politika hori da ardura deutsona Javierrezi Mañarian, Rosa Mariri Berrizen, Aitorri Ondarroan, Manuri Abanton edota Mireneri Berangon.

Hauxe dogu gauzen politika. Gobernatzea egitea da. Aldeak alde, etxea administratzea lakotxea da. Horrenbeste diru dozu, horrenbeste gastatzen dozu, etxeko beharrai erantzuteko. Garrantzitsua da lehentasunak jartea, eta jakitea noraino heldu zaitekezan zeure diruaz, eta orduan asmatu behar dozu arazoan non dagoan, eta bera konpontzen.

Hauxe da gure proposamena gaurko eta biharko.

Urteetan gabilz lanean, gestinoaren estrategia diseinatzeko; izan be, estrategia horrek bide emon behar deusku aurre egiteko Bizkaiak hurrengo urteetan izango dauzan erronka nagusiai.

Mila lagun baino gehiago izan dira geugaz batera gogoeta egin dabenak, bakotxak bere zereginetik edo alkarte baten izenean, erantzun egokiak topateko hurreko etorkizunak ekarri leikiguzan eginkizunetarako.

“Bizkaia 2015” eztabaidaren partaidetzari esker, egin dogu jardun-plana datozen bost urteetarako.

Hamar proposamen aurkeztuko deutsieguz Bizkaiko uritarrai, ostabe irabazteko euren konfiantza.

Lehengoz, esan behar dogu, behar-beharrezkoa dala ekonomiak jarraitu daian hazten; modu horretara, hobetu ahal izango dogu hemen bizi gareanon bizimodua bera.

Gure ekonomiaren egiturari emongo deutsagu laguntasuna, eta hori barrikuntzan datza, teknologian datza, bai eta jakitean be. Mundu globalizatu honetan ezin geinke lehiatu produkzinoaren kostuen alderditik.

Hazten dagozan herrialdeak kostu txikiak daukiez esku-lanean, eta horrexegaitik joan behar dogu euren aurretik. Erronka eta dema bihurtzen dira abagune.

Gure izaera industriala sendotu behar dogu, ze industriatik jaten dabe zerbitzuak, berak sortzen dauz jarduera, enplegua eta aberastasuna, azken baten.

Gu euskal abertzaleak gara, eta gure helburua da ereitea, geroago batzeko; aberastasuna sortu behar dogu, gero bera banatu ahal izateko. Pertsonarik prestatuenak eduki behar doguz, etorkizuneko problemak konpontzeko. Sakada emongo deutsagu barrikuntzari automozinoaren arloan, eta horrexegaitik jarriko dogu Automobilaren Inteligentziaren Zentroa Zornotzan eta Ermuan; horregaitik lagunduko doguz eraikuntzaren teknologia barriak, Alonsotegin planta barria jarriaz; arrazoi beragaitik, jarriko dogu espazio barria teknologia eta empresarako Abanton eta Urtellan; eta horregaitik ezarriko dogu Euskal Herriko Unibertsidadearen kanpus zientifiko eta teknologiko barria Leoian eta Bilbon. Horreek guztiak izango dira lehentasuneko jardunak Aldundiaren taldearentzat, hau da, hurrengo hauteskundetik urtengo dauan talde barriarentzat.

Era berean, nire-neure konpromisoa da, eta Euzko Alderdi Jeltzalearena, hainbat leku bizibarritzea, berbarako, Gernika eta beraren inguruak. Leku horreetan betiko industria geldotzen joan da apurka-apurka, eta proiektu ekonomiko barriak ekarri gura doguz, aspaldiko indarra eta bizia barriko eskuratzeko betidanik ekin eta langilea izan dan eskualde horretan.

Lehenengoz, bizi behar dogu, gero etorriko da asmatzen ibiltzea. Zerga-sistema erakargarri baina zurrunagaz. Kupida barik jardun behar dogu tranpak egiten dabezanakaz, orain arte egin dogun moduan. Tranpatiaren izena dana dala.

Inbertitzeak izan behar dau errentagarri, baina bakotxak ordaindu behar dau berari jagokona.

Egitarauaren bigarren ardatza: etxebizitza.

Azken lau urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiak esku-eskutik egin dau behar udalakaz; etxebizitzaren lehen plana egin dau, eta horrek bide emon dau, bide barri bat topateko, eta hor inplikazio publikoak handiagoa izan behar dau. Lan gehiago egin behar dogu batera. Errazagoak izan behar dabe gestinorako tresnak. Horrela, eta udal korporazioak batera, moduan gagoz Etxebizitzaren Foru Planaren beste fase bateri ekiteko; izan be, aldi barri horretan, amaituko doguz Trapagan eta Urtuellan egiteko dagozan jardunak, eta beste hiru mila eraikuntza barri jaso ahal izango dira, hogei udalen adostasunagaz.

Egitarauaren hirugarren apustua: zahartzaroa duintasunez emotea.

Azken lau urteetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuak %84ko (ehuneko laurogeita lauko) gehikuntza izan dau gizarte-zerbitzuetan. Benetako apustua egin dogu gizarte-justiziaren alde, baliabide publikoak erabiltzeko behar gehien daukienentzat, eta horrela jarraituko dogu. Laguntza emongo deutsagu familiarri, eta laguntza emongo deutsiegu etxetik kanpo eskaintzen diran zerbitzu publikoai; eta horrek izango dira proposamen honen funtsezko zutabeak:

1.—Politikak sustatuko dira, zahartzaroa aktiboa izan daien edadeko pertsonak; horretarako, prestakuntza-jardunak ezarriko doguz, bai eta astaldikoak, alkartasunekoak, alkarrekintzakoak eta gizartearen parte hartzeakoak.

2.—Laguntza teknikoak ezarriko dira, edadeko pertsonai laguntza emoteko euren etxeetan.

3.—Telelaguntza garatuko dogu.

4.—Zerbitzuak sustatuko doguz laguntza etxean emoteko.

5.—Handiagoa izango da eguneko zentroen laguntza, bai plazetan, bai arreta emoteko ordutegian.

6.—Laguntza emongo jako familiei arreta emoteko dagoan sareari; eta, eremu honeri buru emoteko,

7.—Gehitu egingo dira egoitzetako plazak eta plaza sozio-sanitarioak lurrarde osoan.

Egitarauaren laugarren ardatza: aukera-bardintasuna.

Bardintasuna hemengoentzat, euren jatorria dan lekukoa dala. Bizi gareala bizi garean lekuan. Alkartasuna guztion artean. Erantzukizuna partekatzea andrazko eta gizonezkoen artean.

Aukera barriak eskainiko jakez ezinduai, eta kalidadeko zerbitzu publikoak izango dabez euren inguruan. Egitarau bereziak iazngo dira, gure kaleetako oztopo urbanistikoak kentzeko, mogitzeko arazoak daukiezanak heldu ahal daitezan toki guztieta. Egoitzetan plaza gehiago egongo dira, bai eta eguneko zentroetan be. Izango dira zereginetako zentro barriak, babespeko apartamentuak, etxez etxeko laguntzak, garraio publiko moldatuak.

Alkartasuna atzerrira begira; inbertsinoak izango dira aurrekontu publikoaren %0.7koak (ehuneko zero zazpi koak). Ehuneko zero zazpi hori izango da benetako baliabideena, ezetariko azpikeria barik.

Egitarauaren bosgarren ardatza: kalidadeko bizimodua guztiontzat.

Metropolikoentzat eta landa-gunekoentzat. Ongizateak orekatuta egon behar dau lurraldean. Kultura eta astialdiaren eskutik. Ekipamendu barrien eskutik. Pilotaleku barria izango da, eta

Kiroldegi barria. Izango da Ugerleku Olinpikoa, eskola-kirola indartuko da. Eta izango dogu eliteko kirola be. Izango da Athletic, Bilbao Basket, Euskadiko txirrindulariak, pala profesionala, andrazkoen txirrindularitza, eta Bizkaia Bizkaialde.

Modu egokian gestionatuko dira oinarritzko zerbitzuak. Ur on eta ugaria udalerri guztieta. Ziklatze-plana izango da, eta bidegorrien sarea be.

Egitarauaren seigarren ardatza: ingurugiroa gizartearen zerbitzupean.

Horretarako, jarraitu gura dogu nekazaritza profesionalizatzen eta zaharbarritzen. Sakatuko dogu lur-eremu bat ezartzeko nekazaritzako alkartegi modura. Berreskuratuko doguz daborduko erabilten ez diran baserriak. Uri Hondakin Solidoen Planaren bigarren fasea ezarriko dogu, eta horretarako eraigiko doguz azpiegitura barriak (Tratamendu Mekaniko-Biologikoaren Planta, Konpost-planta), eta Bizkaiko hondartzai ezarriko deutsieguz kaliditate-estandarrak eurak ondo gestionatu eta uritarren zerbitzupean jarteko. Aurreko guztiaz ganera, Euskal Herriko Unibertsidadeagaz batera, proiektu aurrerazalea ipiniko dogu Euskadin, ingurumeneko politiken eretzean, Osasunerako Ingurumeneko Bioteknologiaren Zentro barria ezarriaz.

Atal honegaz batera dago egitarauaren hurrengo ardatza, zazpigarrena: beste sustapen berde bat emotea Bizkaian.

Berean ikusten dogu, Bilboko Udalagaz batera, Bilborako beste inguru berde bat eratzea, Malmasin eta Ollargandik Artxandaraino doana, Pagasarritik pasatuta. Denbora-pasarako leku barriak izango dira. Hostozabal barriak landatuko dira. Meaztegi Berdea proiektua be egin egingo da; hau Bizkaiko azalerarik handiena da, eta metropoliko parkea izango da; hurrengo legegintzaldiaren barruan be, berreskuratuko doguz gure lurraldea zeharkatzen daben bidezidorren ibilbide nagusien seinaleak.

Garraio publikoa eta errepide barriak dira gure gobernuaren etorkizuneko ekintzaren zortzigarren eta bederatzigarren ardatzak.

Gure garraio publikoen estaldurak eta maiztasunak zabaldu egingo dira, eta horrek izango dira Euzko Alderdi Jeltzalearen hauteskunde-proposamenaren helburu nagusiak.

Asmoa dogu, metropoliko trenbideko bidaiaien kapazidadea %25ean (ehuneko hogeita bostean) zabaltzeko; izan be, hori helduko da Santurtzira eta Cabiecesera, mutur batetik, eta Basaurira, bestetik.

Era berean, gure asmoa da barikutik zapaturako gaeuko zerbitzuaren ordutegia luzatzea. Derrigorreko aparkalekuen plazak gehituko doguz geltoki jakin batzuetan, hau da, garraioen modu ezbardinak hartzen dabezan geltokietan.

Errepidezko garraioaren eretzean, zuzeneko lineak gehituko dira Bilbogaz, batez be, Enkarterrin, Kadaguako pasabidea abian jarritakoan. Era berean, ez da izango udalerririk Bizkaian garraio publikoaren zerbitzurik izango ez dauanik; abian jarriko doguz Bizkai-taxiaren prestazinoak udalerri batzuetan, hau da, bidaiaien eskaria txikia izanik, autobusaren ordez ibilgailu txikiagoak behar dabezan udalerrietan.

Errepideen eretzean, badira obra batzuk egiten une honetan, eta horrek dira Bizkaian orain arte inoiz egin diran inbertsino publikorik handienak; eta, horrekaz batera, proiektu barriak egingo dira, A-8ren kapazidadea handitzeko; Enekuri eta Egirletako bikoitzurak egingo dira; Santimamiko sarbide barriak egingo dira, eta lanak egingo dira komunikabideak modu berezian beteta daukiezan eskualdeetan. Eta hor aitatu gura dodaz Autzagana eta Bermeo (saihesbidea) Busturialdean, Muntzaratz-Lebario eta eurak autobidean daukien sarbidea, bai eta Ermuko saihesbidea Durangaldean, eta Ondarroako pasabidearen azken tartea Lea-Artibain.

Buru emongo deutsat Euzko Alderdi Jeltzalearen gobernu-proposamen honeri erantsiaz bizi-kalidade balio barriak guztiontzat. Azken lau urteetan azpiegiturak eroan doguz Arratira eta Kadaguako ibarrera Internetako banda zabala jaso ahal izateko; laster baten, lanai ekingo deutsiegu gauza bera egiteko Bakion; ba, datorren legegintzaldian, moduan izango gara pausu ikaragarria emoteko Administratzioaren eta administratuen arteko hartu-emonetan, eta horretarako erabiliko doguz informazio eta komunikazioaren teknologiak.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak, lurraldeko udalakaz batera, sortuko dau edukien atari handi bat, eta berean edozein bizkaitarrek izan ahal izango dauz hartu-emonak modu telematikoa Administratzinoagaz.

Helburu horreri begira, Bizkaiko uritar guztiai doan emongo jake posta pertsonal elektronikoa, eta atari haretara sartu izango da edozein aparatu-tatik, eta modu horretara administratuak egin ahal izango dau edozein kontu foru eta udal Administratzinoakaz.

Proposamen hau aurrendaria da Estadu mailan, eta izango dau mundu zabalean puntan dagozan enpresen lagunza teknologikoa; hori ezeze, prest gagoz, eskaintza egiteko Bizkaiko udalai, eurak instalatu daiezan higiezin publikoetan eguzki-plakak eta fotovoltaikoak, eta horrela aprobetxatu ahal izango dabez modu iraunkorrean energia garbiaren iturri barriak.

Horreek dira, laburpen modura, gure oinarrizko hamar proposamenak, eta euren gainean egingo da Bizkaiko gobernu-ekintza etorkizunean. Egitarau handi baten musika da, eta beraren letra joko dogu datozen egunetan, izan be, artean badogu denbora gure uritarrai aurkezteko zehatz-mehatz zer egin nahi dogun Bizkaia deritxan bizi-gune hau partekatzen dogun guztiak bizi-kalidadea hobetzeko.

Asmoak dira, gogoak. Konpromisoak. Askozaz gehiago berbak baino.

Orain dala hogeita hamar urterik hona, Euzko Alderdi Jeltzaleak, beraren andrazkoak eta gizonezkoak izan dira gizartearen aldaketaren aurrendariak.

Erakunde politiko guztiak daukie helburu legez gizartea aldatzea, hobetzea, eta beharrizanen arabera moldatzea.

Guk, euzko jeltzaleok, aukera egin genduan orain hogeita hamar urte gure aberria egiteko. Ideologiagaitik egin genduan, uste dogulako Euzkadi euzkotarren aberria dala. Gure Herria dalako, sinesten dogun herria. Gure seme-alaben eta iloben herria izango dana.

Batzuk uste dabe, hemen gobernatu leikiela urrinezko kontrolaz. Eta baleiteke hala izatea, ez dot ukatuko. Beti be, gobernatzea askozaz gehiago da erabagiak hartzea baino. Hurrekotasuna da. Nork bere burua bustea euria danean, euria guztiontzat dalako. Gure ingurukoen pozak eta penak partekatzea da. Eta jakitea dekretu, arau edo agindu bat izenpetzen dauen sinadura bakotxaren atzean badagoala jendea ukiturik. Pertsonak dagoz erabagi bakotxaren atzean.

Horrexe-gaitik, urrinezko kontrolaren teoriari eusten deutsienak aginduko dabez egunokaz gitxien uste leitekeezan buruberokeria populistenak. Helduko dira "dana doan"eko proposamenak, "nork gehien emote"ko enkante mediatikoa, edo, kasurik txarrenean, iraina eta engainua.

Gobernatuko ez dauala dakinak bakarrik agindu leike ezinezkoa dana. Engainu berba ez da ageri gure hiztegian. Gure konpromisoak dira errealityadeak. Konfiantza kontua da.

Beste batzuk antxinean dagoz lotuta, eta aurkeztuko dira euren eskubideak aldarrikatuaz. Ostera, ahaztuko dabez, betiko legez, besteon eskubideak. Eta nahastu nahiko gaitue estrategia neurtu bategaz; estrategia horretan biktimismoa izango da jantzi erakargarria, hau da, euren perestroika be gainditu ez dabenen jantzia.

Hogeita hamar urte emon dabez ‘ezetza’ren atzean. Guztiari esan deutsie ezetz, gauza guztiai jarki jakez, eta orain, zer egingo dabe? Gura dogu maiatzaren 27an euren boto-papera egon daiten hauteskunde-barrutietan. Euren eskubidea da, eta guztion eskubidea da, ideiak eta proiektuak alkarren aurrean jarteko.

Hantxe gura dodaz, ikusi nahi doguz. Guk modu demokratikoan garaitzeko eurak. Egiaztatu gura dogu botoz bota, borondatez borondate, zein dan euren ordezkaritza, zein dan euren gitxitasuna eta zein dan euren legitimidadea.

Guk, geureari. Gu, gurera. Egunean-egunean jaso behar dogu pertsiana. Lanean jarraitu behar dogu Bizkai eta Euzkadi hobeak izateko. Abertzalesuna lanean. Aberringtona egunean-egunean. Pikotx eta atxurreko aberringtona.

Bizkaiak, Euzko Alderdi Jeltzaleagaz, aurrera egiten jarraituko dau. Aurrera egingo dogu, ekonomia hazten, gizarte prestazinoak emoten, bizi-kalidadea hobetzen, balio barriak ezarten, aukera barriak izaten. Aurrera jarraituko dogu Euzkadi barriaren aurrendari legez. Gure Herria, funtsean, bere borondate eta ahaleginaren mende egongo da.

Bizkaia prest dago, gertu, Euzkadiren burua izateko, geroago eta mendekotasun txikiagoa izango dauan Euzkadi horren burua, egunean baino egunean bere etorkizunaren jabeago dan Euzkadi horren burua.

Hemen dago koska: ereitea batzeko. Sortu aberastasuna, bera banatu ahal izateko.

Eta gure helburua hauxe da: gure uritarrak egunean baino egunean zoriontsuagoak izatea. Etorkizuna pausuz pausu irabaztea. Herria, gizarte eta aberria irabaztea. Bizkai eta Euzkadi aske, alkartsu, aberatsak, eta munduari zabalik eta bakean dagozanak.

Eskerrik asko.